



Bortzirieta Euskara Mankomunitataren eta Xorroxin Kultur Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena

BILDURIK:

Alde batetik Leire Mitxelena Gamio (NAN 44.631.990-F), Bortzirieta Euskara Mankomunitateko (IFK P3126685A) lehendakaria denez, erakunde horren izenean eta indarrean dagoen legeak emandako ahalmenaren arabera.

Bertze aldetik, Josetxo Apezetxea Larrainzar (NAN 72.667.283-W), A.C. Xorroxin Elkartearen lehendakaria den aldetik, erakunde horren izenean (IFZ G31267008).

ADIERAZTEN DUTE:

- Xorroxin Kultur Elkarteak (hemendik aitzinera *elkartea*) Xorroxin Irratia emititzen duela.
- Xorroxin Irratia Bortzirieta aditzen dela.
- Irrati hori euskaraz dela, eta, Bortzirieta Euskara Mankomunitatearen (hemendik aitzinera *mankomunitatea*) estatutuetan jasotzen diren helburuekin bat eginez, Bortzirieta euskararen erabilera normalizatzeko, gizarteratzeko eta sustatzeko tresna ezinbertzekoa dela.
- Irratiak eskualdeko albisteak, gertaerak, tokiko gizarte bizitza eta kultura adierazpenak, hala nola mankomunitate honen ustez bertako herritarrentzat bereziki interesgarri diren edukiak gizarteratu eta hedatzen dituela.
- Mankomunitateak ez du dirulaguntza deialdi publikorik egin ez dagoelako aipatutako helburuak betetzen dituen bertze onuradunik.

Horiek horrela, bi aldeek beren arteko hitzarmena arautzeko asmoarekin hitzarmen hau egin dute.

HITZARTU DUTE:

Lehenik. Tokiko hedabide honek bere jarduerarekin jarrai dezan mankomunitateak 15.759,00 euroko dirulaguntza emanen dio 2023an. Horretarako mankomunitateko aurrekontuan entitatearen izenarekin izendatutako partidako kreditua erabiliko du (1 3350 4820006 partida). Dirulaguntza bi zati berdinetan ordainduko du, elkarteak eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondotik.

Bigarrenik. Elkarteak honakoak egingen ditu:

1. Elkarteak kudeatzen duen irratia tokiko euskarazko hedabideen izaerari eutsiko dio.

2. Bortziritan euskararen erabilera gizarteratzeko eta sustatzeko helburua duten ekimenen berri emanen du.
3. Irratian mankomunitateak emandako dirulaguntzaren berri emanen dute, ahal delarik erakundearen logotipoa erabiliz.

Hirugarrenik. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epeak.

1. Apirilaren 30a baino lehen elkarteak dokumentazio hau aurkeztuko dio mankomunitateari:
 - a. Ekitaldi ekonomiko horretako aurrekontua, sarrerak eta gastuak xeheki zehaztuz:
 - i. Sarrerei dagokienez, bertzelako erakunde publikoetan eta bertze autonomia erkidego batzuetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntza guztiak espresuki adieraziko dira, bai eta partikularrek emandakoak edo enpresa pribatuetako bertzelako diru sarrerak (babesak eta publizitatea, errate baterako).
 - ii. Gastuei dagokienez, ongi zehaztu behar dira langileak eta kolaboratzaileak kontratatzetik sorturiko gastuak, ustiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu eta banaketa gastuak zein eta zenbatekoak diren.
 - b. Horrekin batera, irratitari buruzko oinarrizko informazioa jasotzen duen txostena, bertzeak bertze, informazio hau jasoko duena: irratia programazioa, emisio orduak, kolaboratzaileen zerrenda eta elkarteak egoki irizten duen informazioa.
2. Azaroaren 30a baino lehen, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
 - a. Urteko jardueren memoria.
 - b. Memoria ekonomikoa, sarrerak eta gastuak xeheki zehaztuz:
 - i. Sarrerei dagokienez, bertzelako erakunde publikoetan eta bertze autonomia erkidego batzuetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntza guztiak espresuki adieraziko dira, bai eta partikularrek emandakoak edo enpresa pribatuetako bertzelako diru sarrerak (babesak eta publizitatea, errate baterako).
 - ii. Gastuei dagokienez, ongi zehaztu behar dira langileak eta kolaboratzaileak kontratatzetik sorturiko gastuak, ustiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu eta banaketa gastuak zein eta zenbatekoak diren.
 - c. Zinpeko aitortpena, adieraziz haien diru sarrerak aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren horiek direla, eta ez gehiago; eta edozein kasutan sarrera horiek ez direla gastuak baino handiagoak izan.

Laugarrenik. Egin beharreko tramiteak eta aurkeztu beharreko dokumentuak nahitaez telematika bidez aurkeztuko dira, honako helbide honetan:
<https://egoitzaelektronikoa.bortziriak.eus/eu/tramites/registro-telematico/>



Bosgarrenik. Mankomunitateak, bere aldetik, eta dirulaguntzak arautzen dituzten irailaren 17ko 38/2003 Legeari eta azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari loturik, honako eginkizun hauek beteko ditu:

1. Emandako dirulaguntzaren kontrola egingen du laguntza oinarritzen den helburua eta ekintzak benetan bete direla egiaztatu ahal izateko.
2. Aipatu legeei jarraituz, dirulaguntzaren oinarriak bete ez direla frogatzen bada edota egoki egiaztatu ez direla ikusiz gero, diru publikoa berreskuratzeko prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu.

Seigarrenik. Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa da. Hala ere, bi aldeak ados egonez gero, mankomunitatearen aurrekontu propioak horretarako aukera ematen dion neurrian eta betiere dagokion diru izendapena aurreikusi bada urteko aurrekontuan, hitzarmenaren iraupena urtero luzatu ahal izanen da. Betiere gehienez lau urteko iraupena izanen du, luzapenak barne.

Zazpigarrenik. Hitzarmen honen interpretazioa mankomunitateari dagokio, eta elkarteak mankomunitatearen erabakiak onartu beharko ditu. Balizko auzigaiak bide administratiboan konponduko dira, indarrean dauden legezko xedapenekin bat.

Zortzigarrenik. Eskatzaileen datuak horiek babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eta horrela jasoa gera dadin, bi aldeek agiri hau onartu dute.

Bortziritako Euskara Mankomunitatea
Leire Mitxelena Gamio

Xorroxin Kultur Elkartea
Josetxo Apezetxea Larrainzar

